

**EUSKARA ZERBITZUAREN OINARRI
ARAUTZAILEAK ETA 2025EKO DEIALDIA
EUSKARAZKO ERROTULUAK JARTZEAGATIK
DIRULAGUNTZAK EMATEKO**

**BASES REGULADORAS Y CONVOCATORIA
DE 2025 DEL SERVICIO DE EUSKERA PARA
LA CONCESIÓN DE AYUDAS POR PONER
RÓTULOS EN EUSKERA**

1.- XEDEA

Deialdi honen helburua da 2025ean establezimenduetako errotuluak euskaraz jartzen dituztenei dirulaguntzak emateko modua arautzea.

Laguntza hauek norgehiagoka bidez emango dira, eta emateko prozedura Zumaia Udalaren Ordenantza Orokorrean ezarritakoa izango da.

2.- ONURADUNAK

Helbide fiskala Zumaian duten establezimenduen jabe diren pertsonak edo entitateak izango dira dirulaguntza hauen onuradun, betiere araudi honetan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

3.- ESKAERAK AURKEZTEKO TOKIA ETA EPEA

Eskaerak deialdiko eskabide ereduaren arabera aurkeztu beharko dira Udalaren Erregistro Orokorrean edo telematikoki www.zumaia.eus egoitza elektronikoen erregistroaren bidez.

Eskabideak aurkezteko epea deialdiaren laburpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da eta 2025eko azaroaren 28an amaitu.

Eskabideak aurkezteak deialdi honetan jasotako baldintza guztiak berariaz eta oso-osorik onartzen direla esan nahi du.

1.- OBJETO

Esta convocatoria tiene por objeto regular las condiciones para la concesión de las ayudas destinadas a los establecimientos que en 2025 pongan los rótulos en euskera.

La concesión de la subvención se efectuará en régimen de concurrencia competitiva, y el procedimiento será el establecido en la Ordenanza General del Ayuntamiento de Zumaia.

2.- BENEFICIARIOS/AS

Serán beneficiarias de las presentes subvenciones aquellas personas o entidades que tengan domicilio fiscal en Zumaia, siempre y cuando estas cumplan con las condiciones establecidas en el presente reglamento.

3.- LUGAR Y PLAZO DE PRESENTACIÓN DE SOLICITUDES

Las solicitudes deberán presentarse en el Registro General del Ayuntamiento o telemáticamente a través del registro de la sede electrónica www.zumaia.eus, según el modelo de solicitud de esta la convocatoria.

Las solicitudes deberán presentarse a partir del día siguiente a la publicación del extracto de la convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y antes del 28 de noviembre de 2025.

La presentación de solicitudes supone la aceptación total y expresa de todas las condiciones establecidas en la presente convocatoria.

4. AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Eskabideak deialdi honen eranskinetako eredu normalizatuaren bidez egingo dira. Horrekin batera, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- a) Errotuluaren edo toldoaren faktura eta dagokion ordainagiria.
- b) Jarritako errotuluaren argazkia.
- c) Hirugarrenen alta emateko agiria (edo bankuko kontuaren titulartasun ziurtagiria).

Zumaia Udalak, NISAEren Nodoaren bidez, beharrezkoak diren egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu interesdunek administrazioaren esku jarri dituzten datuei buruz. Horregatik, elkarreragingarriak izan daitezkeen datuak eskatzeari utziko zaio, baldin eta interesduna datu horiek erabiltzearen aurka agertzen ez bada berariaz; kasu horretan, dagozkion datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko ditu.

Administrazio publikoen arteko datu bitartekaritzarako oinarria urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluan zehazten da, non aitortzen baita herritarrek eskubidea dutela ez aurkezteko edozein administrazio egindako dokumentuak, jatorrizko dokumentuak, ezarri beharrekoak den araudiak eskatzen ez dituen datuak edo dokumentuak, edo interesdunok aurretik edozein administrazioari emandakoak.

Era berean, 40/2015 Legearen 155. artikulua adierazten duena gogora ekarri, administrazioek elkarri lagundu behar diote datu trukean, eta herritarrei buruzko datuak haien esku daudenak, eman behar dituzte.

Horren ildotik, Zumaia Udalak honako baldintza hauek egiaztatuko ditu dirulaguntza hauek eskuratu ahal izateko, NISAEren, datuen eta beste administrazio

4. DOCUMENTACIÓN A PRESENTAR

Las solicitudes se formularán mediante el modelo normalizado del anexo de esta convocatoria. Deberán acompañarse a la solicitud los siguientes documentos:

- a) Factura del rótulo o toldo con su correspondiente justificante de pago.
- b) Fotografía del rótulo colocado.
- c) Documento de alta de tercera persona interesada (o certificado de titularidad de la cuenta bancaria)

El Ayuntamiento de Zumaia mediante el Nodo de NISAE, va a realizar las comprobaciones y consultas necesarias de los datos de las personas interesadas que obren en poder de la Administración. Es por ello que se dejarán de solicitar datos que puedan ser interoperables, siempre y cuando la persona interesada no se oponga de forma expresa al uso de los mismos, en cuyo caso, deberá aportar los datos o documentos correspondientes.

El fundamento para la intermediación de datos entre las Administraciones Públicas se concrete en el artículo 28 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, donde se reconoce el derecho de la ciudadanía a no aportar los documentos que hayan sido elaborados por cualquier Administración, documentos originales, datos o documentos no exigidos por la normativa reguladora aplicable o que hayan sido aportados anteriormente por el interesado a cualquier Administración.

Asimismo, existe el deber de las Administraciones de colaborar, tal y como indica el Artículo 155 de la Ley 40/2015 en el entorno del intercambio de datos, debiendo facilitar los datos relativos de la ciudadanía que obren en poder de estas.

En este sentido, el Ayuntamiento de Zumaia verificará los siguientes requisitos para acceder a estas subvenciones desde los servicios de la plataforma de



batzuen bitartekaritzarako plataformaren zerbitzuen bidez:

- NAN edo agiri baliokidea.
- IFK agiria (erakundea bada)
- Zerga betebeharrak beteak dituela.
- Gizarte Segurantzaren aurreko betebeharrak egunean dituela.

intermediación de datos y otras administraciones, NISAE:

- DNI o documento equivalente.
- CIF (solo entidades)
- Hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias.
- Hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones frente a la Seguridad Social.

Zumaia Udalak ofizioz egiaztatuko du harekiko betebeharrak betetzen direla.

La certificación de estar al corriente con el Ayuntamiento de Zumaia se realizará de oficio.

Ezin bada datuen artekaritza plataformen bidez edo hartarako gaitutako bestelako sistema elektronikoen bidez kontsulta egin, salbuespen moduan eskatu ahal izango zaio eskatzaileari dokumentazio hori aurkezteko.

En el caso en que no fuera posible la realización de la consulta a través de las plataformas de intermediación de datos u otros sistemas electrónicos habilitados al efecto, se podrá solicitar excepcionalmente a la persona solicitante que presente la documentación en cuestión.

5.- AUREKONTUKO DIRU HORNIDURA

Aipatutako dirulaguntzarako 2.000,00 € daude 1 0200.481.335.10.01 2025 (105) kontu sailean. Beharrezkoa bada, kontu sail berean euskalduntzerako izendatutako dirua erabili ahal izango da, betiere aurrez agortu ez bada.

5.- DOTACIÓN Y PARTIDA PRESUPUESTARIA

Para la subvención mencionada se destinarán 2.000,00 € que se encuentran en la partida 1 0200.481.335.10.01 2025 (105). Si es necesario, se podrá disponer de la dotación asignada en la misma partida para las subvenciones del aprendizaje de euskera, siempre y cuando no se haya agotado antes.

6.- DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN GASTUAK.

Diruz lagun daitezkeen gastuak dira dagozkien euskarriak (kanpoko errotuluak, toldoak, erakusleihoetako itsasgarriak...) lortzeko egin behar direnak, baldin eta oinarri hauetan ezarritako epean egiten badira.

6.- GASTOS SUBVENCIONABLES

Serán subvencionables todos aquellos gastos necesarios para la obtención de los correspondientes soportes (rótulos exteriores, toldos, pegatinas para el escaparate...), siempre y cuando hayan sido efectuados dentro del plazo establecido en esta convocatoria.

Ez dira diruz lagunduko errotulu elebidunak, nahitaezkoa izango da euskaraz bakarrik egotea.

No se concederá subvenciones a los rótulos en bilingüe, será indispensable que estén únicamente en euskera.



Ez da laguntzarik emango izen berezia bakarrik agertzen denean; establezimenduaren jardura euskaraz adieraztea hartuko da irizpidetzat.

No serán subvenciones aquellos rótulos que contengan solamente un nombre propio; el criterio a seguir será que se haga referencia a la actividad del establecimiento en euskera.

7.- ESKAERAK BALIOZTATU ETA LAGUNTZAK EMATEKO BALDINTZAK

7.- VALORACIÓN DE SOLICITUDES Y CONDICIONES PARA EL OTORGAMIENTO DE LAS SUBVENCIONES

Eskaerak emateko irizpidea izango da ziurtatzea eskatzaileak baldintza guztiak betetzen dituela. Lan hori Euskara Zerbitzuko teknikariek egingo dute.

El criterio utilizado para otorgar las solicitudes será el de comprobar que éstas cumplen todos los requisitos. De ello se encargará el personal técnico del Servicio de Euskera.

- Establezimenduak helbide fiskala Zumaian duela.

- Que el establecimiento tiene su domicilio fiscal en Zumaia.

- Eskatzaileak betebeharrak eguneratuak dituela.

- Que la persona solicitante está al día en sus obligaciones.

- Udalaren baimena baduela (toldo eta antzekoak jartzeko)

- Que cuenta con la autorización del Ayuntamiento (para toldos y similares).

- Errotulua euskaraz eta zuzen idatzi dela.

- Que el rótulo está correctamente escrito en euskera.

Azken puntuari dagokionez, establezimenduei gomendatzen zaie aurrez dagokion kontsulta egitea Euskara Zerbitzuan.

En relación al último punto, se recomienda a los establecimientos que hagan de antemano la correspondiente consulta en el Servicio de Euskera.

8.- EBAZPENA

8.- RESOLUCIÓN

Euskara zerbitzuburua izango da instrukzioaren arduraduna eta, aurrez Euskara Batzordean txosten teknikoak aurkeztu eta gero, alkate dekretuz ebatziko da.

La persona responsable del servicio de euskera de hará cargo de la instrucción, y tras presentar el informe técnico en la Comisión de Euskera, se resolverá mediante decreto de alcaldía.

Guztia gehienez 6 hilabeteko epean egin beharko da, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik hasita.

Todos esos trámites deberán ser realizados en un plazo máximo de 6 meses, contados a partir de la finalización del plazo de presentación de solicitudes.

Aipatutako epea igaro eta gero, Udalak eskabideren bati buruzko erabaki zehatzik hartu gabe izango balu, erantzuna ezezkota dela esan nahiko du horrek.

Una vez transcurrido dicho período y sin que el Ayuntamiento haya tomado una decisión en concreto sobre alguna de las solicitudes, ésta se entenderá denegada.



9.- DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA ZEHAZTEKO IRIZPIDEAK

Errotulazio elementuaren kostuaren % 50 lagunduko da diruz, 300 euroko muga gaingitu gabe.

Establezimendurako laguntza jaso eta bi urteko epean ezingo da beste laguntzarik eskatu xede bererako.

Udalak dirulaguntzetan ordaindu beharreko kantitatea handiagoa bada aurrekontuan horretarako izendatutako kopurua baino, orduan banaketa proportzionala egingo da eskatzaile guztien artean.

Baimendutako gastua handitu edo murriztu ahal izango du aldaketaren zenbatekoaren arabera eskumena esleituta duen organoak, dirulaguntza ematea ebatzi baino lehen. Dena den, horrek ez du beste deialdi bat egitea ekarriko.

10.- DIRULAGUNTZAK ORDAINTZEA

Banku transferentzia bidez egingo da dirulaguntzen ordainketa, onuradunaren titulartasuneko kontu batean.

Dirulaguntza emango dela jakinarazi eta gero, onartutako zenbatekoaren % 100 ordainduko da.

11. ARAUBIDEA ETA ERREKURTSOAK

Euskarazko errotuluak jartzeagatik dirulaguntzak emateko oinarri berezietan (2022ko abuztuaren 26ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 163. zk.) xedatutakoari jarraituko zaio laguntza hauek emateko.

Oinarri horietan aurreikusi gabeko alderdi guztietan betetzekoak izango dira azaroaren 17ko 38/2003 Legea, dirulaguntzei buruzko lege orokorra

9.- CRITERIOS PARA CUANTIFICAR LA SUBVENCIÓN

La subvención será del 50 % del coste del elemento de rotulación, hasta un máximo de 300 euros.

El establecimiento no podrá solicitar ninguna otra subvención con el mismo objeto en los dos años siguientes.

En el caso de que el importe a abonar sea superior al asignado en el presupuesto para ese concepto, se hará reparto proporcional entre todas las personas o entidades solicitantes.

El importe del gasto autorizado podrá ser incrementado o disminuido, con carácter previo a la resolución de las solicitudes presentadas, por el órgano que tenga atribuida la competencia por razón de la cuantía de la modificación, sin que ello dé lugar a una nueva convocatoria.

10.- ABONO DE LAS SUBVENCIONES

El pago de la subvención se realizará mediante transferencia bancaria a una cuenta de titularidad de la persona beneficiaria.

Una vez comunicado el otorgamiento de la subvención, se hará efectivo el pago del 100% de la cuantía aceptada.

11. NORMATIVA Y RECURSOS

Para la concesión de estas subvenciones se procederá según lo dispuesto en las bases específicas para la concesión de ayudas por la colocación de rótulos en euskera (Boletín Oficial de Gipuzkoa nº 163, de 26 de agosto de 2022).

En todo lo no estipulado en esas bases, serán de aplicación la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones (publicada en el Boletín Oficial del Estado



(azaroaren 18an argitaratua Estatuko Aldizkari Ofizialean); lege horren garapeneko erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 errege dekretuaren bidez onartua (uztailaren 25ean argitaratua Estatuko Aldizkari Ofizialean); Zumaia Udalen dirulaguntzak emateko Ordenantza Arautzaile Orokorra (2020ko abuztuaren 11ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 151. zk.); eta 2024-2027 epealdiko Zumaia Udalen Dirulaguntzen Plan Estrategikoa (2023ko abenduaren 20ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 243 zk.).

Interesdunek deialdi honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu dezakete administrazioarekiko auzietako Donostiako epaitegietan, argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsua aurkezteko deialdi hau onartu duen organo eskudunaren aurrean, argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzeokoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki irizitako beste edozein errekurtsu aurkeztu daiteke.

del 18 de noviembre); el Reglamento de Desarrollo de dicha ley, aprobado mediante el Real Decreto 887/2006, de 21 de julio (publicado en el Boletín Oficial del Estado del 25 de julio); la Ordenanza Normativa General sobre otorgamiento de subvenciones del Ayuntamiento de Zumaia (Boletín Oficial de Gipuzkoa nº 151, de 11 de agosto de 2020); y el Plan Estratégico de Subvenciones del Ayuntamiento de Zumaia para los ejercicios 2024-2027 (Boletín Oficial de Gipuzkoa nº 243, de 20 de diciembre de 2023).

Las personas interesadas podrán interponer directamente contra la presente convocatoria recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante el órgano competente que haya aprobado esta convocatoria, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

ERANSKINA: EUSKARAZKO ERROTULUAK JARTZEKO DIRULAGUNTZA ESKAERA
ANEXO: SOLICITUD DE SUBVENCIÓN PARA LOS RÓTULOS EN EUSKARA

Eskatzailearen izena / Nombre de la persona solicitante		NAN-AIZ / DNI-NIE	
HELBIDEA / Dirección		Herria / Población	PK / CP
Sexua / Sexo	Telefonoa / Teléfono	Helbide elektronikoa / e-mail	
Emak. ☐ Giz. ☐ Ez-binarioa ☐ Mujer Hombre No binario			

Jarduerari buruzko datuak / Datos de la actividad		NAN-AIZ-IFK / DNI-NIE-CIF
Izen komertziala / Nombre comercial	Jarritako testua / Texto escrito	

Jakinarazpenak bidaltzeko datuak (helbidea goikoa ez bada): / Datos para el envío de las notificaciones (si la dirección no es la de arriba):

Helbidea / Domicilio		Herria / Población	PK / CP
Telefonoa / Teléfono		Helbide elektronikoa / e-mail	

NOLA JASO NAHI DITUZU ESKABIDE HONEN ERANTZUNAK (Telematikoki jaso nahi badituzu ziurtagiri digital bat beharko duzu(B@kg, FNMT...)) eta telefono mugikor eta helbide elektronikoko eremuak bete behar dituzu. CÓMO SE QUIERE RECIBIR LAS NOTIFICACIONES DE ESTA INSTANCIA (Para recibirlas telemáticamente es necesario tener un certificado digital (B@kg, FNMT...)) y rellenar los campos de teléfono móvil y correo electrónico.	Telematikoki Telemáticamente	Posta arruntez Correo ordinario
	☐	☐
ESKAERA HONEN ERANTZUNA ELE BIETAN JASO NAHI DUT (Ezer adierazten ez bada, euskara hutsean egingo da) SOLICITO QUE SE RESPONDA A ESTA INSTANCIA EN EUSKERA Y CASTELLANO. (Si no marca la casilla, la respuesta será en euskera)		☐

Banketxea (dirulaguntza sartzeko): / Entidad bancaria para ingreso de la subvención:

Banketxea / Entidad bancaria	Kontu zk. (IBAN barne)/ Número de cuenta (con IBAN)																											
	E	S																										

☐ **Adierazten dut ez dudala debekurik** ☐ **Declaro que no tengo ninguna prohibición que me impida obtener subvenciones públicas.**



BITARTEKOTZAKO PLATAFORMATIK ESKATUKO DIREN ZERBITZUAK	SERVICIOS QUE SE SOLICITARÁN MEDIANTE LA PLATAFORMA DE INTERMEDIACIÓN DE DATOS
Eskatzaileari informatzen zaio, Zumaia Udalak bere dirulaguntza ordenantzan (Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren 151. zenbakia, 2020ko abuztuaren 11koa) eta euskarazko errotuluak jartzeagatik dirulaguntzak emateko oinarri berezietan (2022ko abuztuaren 26ko GAO, 163. zk.) ezarritako baldintzen datuak zuzenean egiaztatuko dituela datuen arloko bitartekotzako plataformatik eta beste administrazioetatik. Hala ere, egiaztatze horri uko egiteko aukera izango du eskatzaileak. Kasu horretan, dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko du.	Se informa a la persona solicitante, que el Ayuntamiento de Zumaia va a verificar los requisitos establecidos en la ordenanza general de subvenciones (Boletín Oficial de Gipuzkoa nº151, del 11 de agosto de 2020) y en las bases específicas para la concesión de ayudas por la colocación de rótulos en euskera (BOG nº 163, de 26 de agosto de 2022) desde los servicios de las plataforma de intermediación de datos y otras administraciones. La persona solicitante tendrá opción a oponerse a esa verificación, en cuyo caso deberá presentar la documentación pertinente.
• NAN edo IFK agiriaren kontsulta • Gipuzkoako Foru Aldundia – Zerga betebeharren ordainketa egunean izatearen kontsulta • Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra - Gizarte Segurantzarekiko betebeharren ordainketa egunean izatearen kontsulta ☐ Aurka nago eta eskatutako dokumentazioa aurkeztzen dut	• Consulta del DNI o CIF • Diputación Foral de Gipuzkoa - Consulta de estar al corriente de pago de las obligaciones tributarias • Consulta de estar al corriente de pago de las obligaciones con la Seguridad Social ☐ Me opongo, y apporto la documentación requerida
Dirulaguntza eskatu ahal izateko, agiri hauek erantsi beharko zaizkio eskabideari: -Euskaraz jarritako errotuluaren edo toldoaren faktura eta ordaindu izanaren agiria -Jarritako errotuluaren argazkia -Hirugarrenen alta emateko agiria (azken orrialdean), banketxean sinatuta eta zigiluz jota, edota titulartasun ziurtagiria.	Documentos que hay que aportar para poder solicitar dicha ayuda: -Factura del rótulo o toldo escrito en euskera, con el correspondiente justificante de pago. -Fotografía del rótulo ya colocado. -Documento de alta de tercera persona interesada (en la última página), con la firma y sello del banco, o certificado de titularidad.

Zumaian,
(data / fecha)

Sinadura (izen-abizenak eta NAN-AIZ adieraziz)
Firma (con nombre, apellidos y DNI-NIE)

Datu babesari buruzko oinarrizko informazioa		Información básica sobre protección de datos	
Tratamenduaren Arduraduna	Zumaia Udalak Foruen plaza 1, 20750, Zumaia (Gipuzkoa) Datuen Babesteko Ordezkaria: dbo@zumaia.eus	Responsable del tratamiento	Ayuntamiento de Zumaia – Zumaia Udalak. Foruen plaza 1, 20750, Zumaia (Gipuzkoa) Delegado/a de protección de datos: dbo@zumaia.eus
Helburua	Udalaren eta haren mendeko erakundearen aurrekontu-, ekonomia- eta kontabilitate-jardunaren ondoriozko informazio pertsonala kudeatzea.	Finalidad	Gestionar la información personal derivada de la actuación presupuestaria, económica y contable del Ayuntamiento y sus entes dependientes.
Zilegitasuna	DBEDBLO 8.1 eta 8.2. artikuluek: legeko betebeharragatik, interes publikoagatik edo botere publikoak baliatzeagatik buruturiko datuen tratamendua.	Legitimación	Artículos 8.1 y 8.2 LOPDGDD: tratamiento de datos personales en cumplimiento de obligaciones legales y en cumplimiento de una misión realizada en interés público o en el ejercicio de poderes públicos.
Komunikazioen hartzaileak	Zumaia Udalak Zerga Administrazioari, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta dagozkion administrazio publikoei jakinarazi ahal izango dizkie zure datuak, tratamendu honen esparruan aplikagarria delako legez hala ezartzen bada.	Comunicación de datos	El Ayuntamiento de Zumaia podrá comunicar sus datos a la Administración Tributaria, a la Diputación Foral de Gipuzkoa, así como a las Administraciones Públicas pertinentes en caso de que legalmente así se establezca por ser de aplicación en el ámbito de este tratamiento.
Eskubideak	Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatze, aurka egiteko, transferitzeko eta mugatzeko eskubideak erabiltzeko eskubidea duzu, bai eta Datuen Babesteko Euskal Bulegoan erreklamazio bat aurkezteko ere.	Derechos	Tiene derecho a ejercer sus derechos de acceso, rectificación, supresión, oposición, portabilidad y limitación, así como presentar una reclamación ante la Agencia Vasca de Protección Datos.
Informazio gehigarria	Datuak babesteari buruzko informazio gehigarria eta zehatza kontsulta dezakezu gure webguneko datuen babesteari buruzko atalean: https://zumaia.eus/eu/udala/datu_en_babesa	Información adicional	Puede consultar la información adicional y detallada sobre protección de datos en el apartado de protección de datos de nuestra página web: https://zumaia.eus/es/ayuntamiento/Proteccion_de_datos

HIRUGARREN INTERESDUNARI ALTA EMATEA (agiri honen baliokidea da bankuaren titulartasun ziurtagiria)
ALTA DE TERCERA PERSONA INTERESADA (el certificado de titularidad del banco es equivalente a este documento)

HIRUGARRENA IDENTIFIKATZEKO DATUAK	
DATOS IDENTIFICATIVOS DE LA TERCERA PERSONA	
NAN/AIZ/IFZ DNI/NIE/CIF	
Izena eta bi abizenak Nombre y dos apellidos	
Helbidea Domicilio	
Posta-kodea Código postal	Herria Población
Lurraldea Provincia	

BANKUAREN DATUAK	
DATOS BANCARIOS	
BANKUA (IBAN kode eta guzti) BANCO (con código IBAN)	
BULEGOA AGENCIA	
KOD DC	KONTU ZENBAKIA Nº CUENTA
JABEA TITULAR	
Oharra: Kontuaren jabeak hirugarrena bera izan behar du. Nota: El titular de la cuenta tiene que ser el mismo que la tercera persona interesada.	

Bankuaren adostasuna Conforme banco
Sinadura eta zigilua Sello y firma

Hirugarren interesdunaren adostasuna Conforme tercera persona interesada
Sinadura Firma

Udalaren onespena VºBº Ayuntamiento
Sinadura eta zigilua Sello y firma

Zumaian, 20 ____ ko _____ (a)ren _____

(Eguna / Fecha)